

IBILBIDE TEKNOLOGIKOA Robotika Lego WeDo

Eibarko Udalak Robotikan inguruko udaleku teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko. Robotak erabiliaz diseinatzen, eraikitzen eta programatzen ikasiko dute Lego Education WeDo plataforma erabiliz, nerabeen inteligentzia, gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean.

Tramitatzailea: Garapen ekonomikoa, enplegu eta berrikuntza Saila.

Hartzaileak: LH 3. Eta 4. mailakoentzat eta haien gurasoentzat.(Derrigorrezkoa da ikaslea heldu batekin egotea).

36€ (Eibarren erroldatuak)

61€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA,Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: DOPLAY

Non: Portalea,Museoa eta Jazinto Olabe Ludoteka

Datak: Martxoak 18 ,25 eta apirilak 1

Ordutegia: Hiru talde izango dira 16:00etatik 18:00etara.

Ikasle kopurua: gutxienez 5 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 30 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Eskaera egiteko epea: martxoaren 3tik 13ra.

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus/kultura eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia. **NAN** dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus/kultura), **martxoaren 15ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 15ean 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiakin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Lehenengo 20 aukeratuak Portalean egingo dute ikastaroa, eta hurrengo 10 aukeratuak, Jazinto Olabeko Ludotekan.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus/kultura), egongo da **martxoaren 15ean, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 451 telefonoan